

KANPEZUKO AUTOKARABANEN APARKALEKUA

KANPEZUN AUTOKARABANAK ETA ETXEBIZITZA IBILGAILUAK APARKATZEKO ETA GAUA-EMATEKO ARAUAK

HAUEK DIRA APARKATU DAITEZKEEN IBILGAILUAK:

Erreserbatutako zonetan etxebizitza gisa katalogatutako ibilgailuak bakarrik aparkatu ahal dira, Bestelako ibilgailuak, adibidez kamioiak, karabanak, egokitzapen ez homologatuak dituzten furgonetak, turismoak, eta abar, ezin dira aparkatu.

EREMUA ERABILTZEKO ORDUTEGIA

1. Ibilgailu hauek gehienez 72 ordu egon daitezke aparkatuta toki berean.
2. Ordutegia: 8: 00etatik 23: 00etara.

ARAUDIA

1. Aparkatutako ibilgailuek uneoro errespetatu behar dituzte zoruan aparkatzeko marraztu diren espazioen mugak. Ezin dute kanpora mahairik, aulkirik, estalirik edo bestelakorik atera.
2. Beti baimenduko da beste erabiltzaile batzuek bidea erabiltzea. Debekatuta dago bigarren ilaran geratzea; eta, bereziki, ibilgailuak galtzadatik edo oinezkoak espaloietatik igarotzea oztopatzen duten jokaerak.
3. Gehienez 72 ordu egon daitezke bertan, ibilgailua geratzen denetik plaza uzten den arte, udaltzaingoak kontrolatuko du egoera. Ezinbestekoetan edo beharrezana dagoenean bakarrik, eta Alkatetzak alde aurretik baimentzen badu, gainditu ahalko da egonaldiaren gehieneko iraupena.
4. Arau hauetan jasotzen den bezala, ezin da kanpatu.
5. Erabiltzaileek daukate ibilgailuek sortzen dituzten ur gris eta beltzak husteko espazio bat ; gainera, tratatu gabeko uraren hargune bat edukiko dute.
6. Ur beltzak husteko gunean ezin da aparkatu.
7. Ur beltzak husteko guneko erabiltzaileek erabili ondoren higiena mantentzeko arduradunak dira.
8. Eredu honetan, edozein motatako ibilgailuak garbitzea, barruko garbiketa egitea edo konpontzea berariaz debekatzen da.
9. Zerbitzugunearen erabiltzaileek ontzat emango dute Udalak hartu dezakeen edozein erabaki bai gunea zaindu eta babesteko, bai errespetu eta auzotasunaren alde. Halaber, Udalak zerbitzugune hauek baliatu ditzake bestelako erabileretarako, inolako kalte-ordainik sortu gabe erabiltzaileentzat.
10. Erabiltzaileek udalari jakinarazi beharko dizkiote gertatzen diren arazo tekniko, matxura, narriadura, gabezia edo erabilera desegoki guztiak.

ERANTZUKIZUNAK

Kanpezuko autokarabanen aparkatze gunea ez da zaindutako eremua. Beraz, Kanpezuko Udalak ez du erantzukizunik hartuko aparkatutako autokarabanetan gorabeherarik, lapurretarik edo antzekorik gertatzen bada.